

MERKATUAREN SEGMENTAZIOA

Gure proiektuan, gure bezeroak batxilergoko ikastetxeetako ikasle eta irakasleak dira, eta hauei esker gauzatzen da. Bezeroen beharrei egokitzen gatzaizkie, hauek gehienbat gazteak izanik, etorkizunari begira zalantza eta galdera gehien izan ditzaketenak direlako. Gainera, irtenbideak bilatzeko gure helburua beraien autonomia eta heldutasuna garatu zein handitzeko bidean laguntzea da. Horretarako, komunitateko ikasgaiko orduak ikasleei kalitatezko gaitasunak erakustera bideratzea nahi dugu. Zerbitzua ikastetxe publiko zein kontzertatuetara bideratuta dago.

Gazteak, ikastetxetan eta beste esparruetan, beraien ibilbide akademikoa eta profesionala zehaztuz, gizartearen parte izateko prestatzea nahi dugu. Hauen garapen pertsonalean eta profesionalean laguntzeaz gain, beraien gizarteko eragina ere handitzeko modu bat eskaintzen du.

Esan bezala, egoera zailak bizi dituzten ikasleak ez dira gutxi. Horretarako batxilergoko azken urtean Komuniterako Proiektuak izeneko ikasgaiean gure proiektua martxan jarri nahi dugu, beraien ondoan duten erakundeen, irakasleen eta mentoreen laguntzaz.

Proiektuak hainbat bidetatik erakartzen ditu, bai ikuspegi akademikoan eta bai gizarte-ekonomikoan. Hauei bideratutako lanek beraien etorkizuna hobetzeko aukera ematen diete, bai lanbideen alorrean eta bai pertsonal eta profesional mailan. Gure asmoa bezeroak bultzatzea, laguntzea eta, batez ere, beraien gaitasunak eta aukerak erakusteko esparru egokiak eskaintzea da, heldutasunera iritsi eta heldutasuna lortzeko bidean.

Horregatik guztiarengatik, gure zerbitzua merkatu-nitxoaren barruan kokatzen dugu.

